

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Kultur sorkutzarako «Sorkuntza» beka emateko 2020. Ekitaldirako deialdia.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen eta horrekin bat datorren araudiaren arabera, Azpeitiko Udalarri dagokio kultura-jarduerak antolatzeke eta sustatzeko eskumena.

Jarduera-eremu material horren barruan, Azpeitiko Udalak egokitzen jo zuen sektore pribatuak kultura-sorkuntzaren arloan sustatzen eta garatzen dituen ekintzak babesteko bide bat arbi-tratzea. Neurri horren bidez, batez ere, ikerketa, prestakuntza, artelan artistikoen ekoizpena eta hedapena sustatu nahi dira, eta parte hartzen duten artistei beren zeregin artistikoaren aintzatespena lortzeko aukera eman nahi zaie.

Ildo horretan, Udalak, 2017ko otsailaren 7an, kultura sorkuntzarako Sorkuntza izeneko beka finantzatzeko laguntzak emateko oinarri espezifikoak onartu zituen (2017ko maiatzaren 2ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 82. zk.).

Kultura-sorkuntzat hartzen da artistaren irudimenaren emaitza, musika, pintura, eskultura, literatura-obra, antzerki-obra, obra zinematografikoa, komikia, soinu-konposizioa, ikus-entzunezko konposizioa, konposizio digitala, dantza eta abarren forma gauzatu eta har dezakeena.

Xedea, subjektu onuradunak, bazterketak, diruz lagun daitzekoen gastuak eta diru-laguntzak emateko prozedura oinarri espezifiko horietan dago araututa.

Aipatutako oinarriek ezartzen dute deialdiak ezarriko dituela laguntzak finantzatzeko aurrekontu-kreditu zehatzak.

2020ko ekitaldi honetan, dinamoa izeneko udal-espazioa erabiltzea bultzatu nahi da, interes kulturalerako ekimen sortzaileak bultzatzeko, sorkuntzarako, esperimintatzeko, ekoizteko eta partekatzeke. Hori dela eta, bi modalitatetan banatu da diru-laguntzaren xedea. Beraz, laguntza-esparru bat diseinatu da, bi beka espezifikoekin, bigarren modalitate horretan jarduerak gauzatu nahi dituzten pertsonen diru-laguntzen araubide honetan sartzeko aukera izan dezaten.

Deialdian adieraziko da eskabideak aurkezteko epea.

Era berean, diru-laguntza hau Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan (2020-2022 aldirako onartua, 2020ko maiatzaren 5eko Osoko Bilkuraren bidez, eta 2020ko maiatzaren 28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua, 99. zk.) eta Udalaren web-orrian sartuta dago.

Azaldutakoaren ondorioz, Azpeitiko alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluan emandako eskumenak baliatuz, 2020ko ekainaren 10eko Dekretuaren bidez, honako hau

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Convocatoria de ayudas para la concesión de becas «Sorkuntza» destinadas a la creación cultural (ejercicio 2020).

De conformidad con la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y normativa concordante, corresponde al Ayuntamiento de Azpeitia la competencia en el ámbito material de ordenación y promoción de actividades culturales.

Dentro de esta área material de actuación el Ayuntamiento de Azpeitia estimo oportuno proceder a arbitrar un cauce que permita apoyar las acciones que el sector privado promueve y desarrolla en el ámbito de la creación cultural. Esta medida pretende sobre todo fomentar la investigación, la formación, la producción de obra artística y su difusión, así como posibilitar que los artistas intervinientes obtengan el reconocimiento a su quehacer artístico.

En este sentido, el Ayuntamiento con fecha 7 de febrero de 2017 aprobó las bases específicas para el otorgamiento de ayudas para financiar las becas denominadas Sorkuntza destinadas a la creación cultural (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 2 de mayo de 2017 n.º 82).

Se entiende como creación cultural aquella fruto de la imaginación del artista que puede materializarse y adoptar la forma de música, pintura, escultura, obra literaria, obra teatral, obra cinematográfica, cómic, composición sonora, composición audiovisual, composición digital, danza etc.

El objeto, los sujetos beneficiarios, las exclusiones, los gastos subvencionables y el procedimiento de concesión de subvenciones está regulado en dichas bases específicas.

Las mencionadas bases establecen que la convocatoria establecerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales serán financiadas las ayudas.

Durante este ejercicio 2020 se pretende favorecer la utilización del espacio municipal denominado Dinamoa para impulsar, crear, experimentar, producir y compartir iniciativas creativas de interés cultural, por lo que se ha desglosado en dos modalidades el objeto de la subvención. Se ha diseñado por tanto un marco de apoyo con dos becas específicas para permitir que aquellas personas que deseen ejecutar actividades en esta segunda modalidad puedan acceder al presente régimen de subvenciones.

El plazo de presentación de solicitudes se indicará en la convocatoria.

Asimismo, la presente subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia aprobado para el período 2020-2022 mediante Acuerdo Pleno de 5 de mayo de 2020 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 28 de mayo de 2020 n.º 99) y página web del Ayuntamiento.

En virtud de lo expuesto, el Alcalde de Azpeitia, en el ejercicio de las competencias conferidas en el art. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local (LRBRL), por Decreto de fecha 10 de junio de 2020,

EBATZI DU

Lehenengoa. Sorkuntza izeneko kultur sorkuntzarako beka emateko urteko deialdia egitea, Azpeitiko Kultura Sailak kudeatutako programen kontura.

Bigarrena. 2020ko udal-aurrekontuan 20.000 euroko aurrekontu-zuzkidura jasotzea, aurrekontu-partidaren kargura:

1.0401.481.334.00.04 2020 Kultura-sorkuntza.

Honela banakatzen da kopuru hori:

A) Kultura-sorkuntzarako modalitatea: 12.000 €.

B) Kultura-sorkuntzako egonaldien modalitatea: 8.000 € (4.000 euroko bi beka).

Hirugarrena. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Eskabideak Azpeitiko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira, oinarrien 5. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Deialdia eta laguntza eskatzeko behar diren gainerako dokumentuak Azpeitiko Udalaren www.azpeitia.eus webgunean daude, laguntzen eta diru-laguntzen atalean.

Bosgarrena. Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1 artikulua. Hori guztia, emandako diru-laguntzak Azpeitiko Udalaren webgunean argitaratzeari kalterik egin gabe.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio deialdia onartu duen organo eskudunari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Bi kasuetan, oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

I ERANSKINA

Kultur sorkuntzarako «Sorkuntza» beka emateko 2020. Ekitaldirako deialdia.

1. Deialdiaren xedea.

2020ko aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdia egiten da 2020. urtean zehar Sorkuntza izena duten beka emateko. Laguntza hauen helburua kultur sorkuntza da.

Kultur sorkuntza bezala ulertzen da, artistaren imajinaziotik eratorritakoa, zeinak musika, pintura, eskultura, literatura obra, antzerki obra, zine obra, komikia, soinu konposizioa, ikus-entzuzko konposizioa, konposizio digitala, dantza etab.

Beken helburua artistei beren obra sortzen laguntzea da.

Diruz lagun daitezkeen modalitate eta jarduera hauek ezarzen dira:

A) Kultura-sorkuntzaren modalitatea.

Diruz lagundu daitezkeen jardueratzat hartuko da kultura-sorkuntzako jarduera.

B) Kultura-sorkuntzako egonaldien modalitatea.

Diruz lagundu daitezkeen jardueratzat hartuko da kultura-sorkuntzako jarduera, eta onuradunek dinamoa izeneko sortze-

HA RESUELTO

Primero. Realizar la convocatoria anual para el otorgamiento de las becas denominadas Sorkuntza destinadas a la creación cultural, con cargo a los programas gestionados por el Departamento de Cultura de Azpeitia.

Segundo. Recoger en el presupuesto municipal del año 2020 dotación presupuestaria por una cantidad total de 20.000 € con cargo a la partida presupuestaria:

1.0401.481.334.00.04 2020 Creación cultural.

Esta cantidad de desglosa de la siguiente forma:

A) Modalidad de creación cultural: 12.000 €.

B) Modalidad de estancias de creación cultural: 8.000 € (dos becas de 4.000 €).

Tercero. El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Cuarto. Las solicitudes se presentarán en el registro general del Ayuntamiento de Azpeitia en los términos previstos en el artículo 5.º de las bases.

La convocatoria y demás documentos necesarios para la solicitud de la ayuda se encuentran en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia www.azpeitia.eus en el apartado de ayudas y subvenciones.

Quinto. La resolución del procedimiento se notificará individualmente a las personas o entidades interesadas de conformidad con lo previsto en el art. 41.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Todo ello, sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia.

Contra la presente resolución, que es definitiva y pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases.

ANEXO I

Convocatoria de ayudas para la concesión de becas Sorkuntza destinadas a la creación cultural (ejercicio 2020).

1. Objeto de la convocatoria.

Se realiza la convocatoria correspondiente al ejercicio presupuestario 2020 para la concesión de subvenciones destinadas a la creación cultural a través de las becas denominadas Sorkuntza durante el ejercicio 2020.

Se entiende como creación cultural aquella fruto de la imaginación del artista que puede materializarse y adoptar la forma de música, pintura, escultura, obra literaria, obra teatral, obra cinematográfica, cómic, composición sonora, composición audiovisual, composición digital, danza etc.

Las becas, tienen como finalidad ayudar económicamente a los artistas en la creación de su propia obra.

Se establecen las siguientes modalidades y actividades subvencionables:

A) Modalidad de creación cultural.

Se considerará actividad subvencionable la actividad de creación cultural.

B) Modalidad de estancias de creación cultural.

Se considerará actividad subvencionable la actividad de creación cultural, debiendo las personas beneficiarias trabajar en

arloan lan egin beharko dute (Soreasu auzoa 1). Modalitate horretako egonaldiaren gutxieneko iraupena 6 astekoa izango da.

2. Baliabide ekonomikoak.

Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa 20.000 eurokoa da 2020ko aurrekontu-ekitaldirako, eta 1.0401.481.334.00.04 2020 aurrekontu-partidaren kargura finantzatu da.

Kopuru hori honela banatuko da:

- A) Kultura-sorkuntzarako modalitatea: 12.000 €.
- B) Kultura-sorkuntzako egonaldien modalitatea: 8.000 € (4.000 euroko bi beka).

Aurrekontu-zuzkidura ez bada iristen eskabide guztiak betetzera, ezarriko den baremoaren arabera, emakida osoari dagokion hainbanaketa aplikatuko da, kultura-sorkuntzaren modalitatean. Hala ere, kultura-sorkuntzako egonaldien modalitateari esleitutako zuzkidura ekonomikoa oso-osorik esleituko zaie puntuazio handiena lortzen duten bi proiektuei.

3. Eskakerak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Parte-hartzaileek bi bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

– Aurrez aurre: eskabideak Azpeitiko Udal Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organo, establezimendu edo bulegoetan aurkeztuko dira.

– Bide elektronikoa: eskabideak aurkezteko, Udalaren egoitza elektronikora jo beharko da, haren web-orriaren bidez, edo 2020ko ekitaldiko laguntzen eta diru-laguntzen ataletik (izapidetzen ari diren laguntzak) edo on line izapideen ataletik (diru-laguntzak).

Azpeitiko Udaleko Kultura Sailak kudeatuko ditu diru-laguntzak.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak Azpeitiko Udalaren webgunean jasotako eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, eta eskabidea-ekin batera, oinarrien 5. artikuluan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dira.

Parte-hartzaileek adierazi beharko dute bi modalitateetatik zein aukeratzeko duten beren proiektuarekin.

Diru-laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela automatikoki egiaztatuko du deialdi honen organo kudeatzaileak, eta ez da beharrezkoa izango haien baimenik. Hala ere, eskatzaileek berariaz uka dezakete egiaztapen hori egiteko baimena, eta, kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira:

– Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatzea eta, hala badagokio, eskuratzea.

– Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez izatea laguntza edo diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, ez eta diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Le-

el área de creación denominado Dinamo, ubicada en Soreasu Auzoa n.º 1. La duración mínima de la estancia en esta modalidad será de 6 semanas.

2. Recursos económicos.

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 20.000 € para el ejercicio presupuestario 2020, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0401.481.334.00.04 2020 Creación cultural.

Esta cantidad se distribuirá de la siguiente forma:

- A) Modalidad de creación cultural: 12.000 €.
- B) Modalidad de estancias de creación cultural: 8.000 € (dos becas de 4.000 €).

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de las solicitudes según el baremo que se establecerá, se aplicará el prorrateo correspondiente al total de la concesión en la modalidad de creación cultural. Sin embargo, la dotación económica asignada a la modalidad de estancias de creación cultural se asignará en su integridad a los dos proyectos que obtengan una mayor puntuación.

3. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las personas participantes podrán presentar sus solicitudes utilizando cualquiera de estos dos canales:

– Canal presencial: las solicitudes se presentarán en el Registro municipal de Azpeitia o ante los órganos, establecimientos o dependencias previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

– Canal electrónico: las solicitudes se presentarán accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento a través de su página web, o bien desde el apartado de ayudas y subvenciones ejercicio 2020 –ayudas en tramitación–, o bien desde el apartado de trámites on line –subvenciones–.

La gestión de las subvenciones corresponderá al departamento de Cultura del Ayuntamiento de Azpeitia.

4. Documentación a presentar.

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se recoge en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia, a la que deberá acompañarse la documentación en los términos previstos en el artículo 5.º de las bases.

Las personas participantes deberán señalar a cual de las dos modalidades optan con su proyecto.

La acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social por parte de las personas solicitantes de las subvenciones se verificará automáticamente por el órgano gestor de la presente convocatoria, sin necesidad de consentimiento de los mismos. No obstante, las personas solicitantes podrán denegar expresamente el consentimiento a que se lleve a cabo dicha verificación, en cuyo caso aportarán la certificación correspondiente.

Se acreditarán mediante declaración responsable incluida en la solicitud:

– La solicitud y, en su caso, la obtención de subvenciones, ayudas, ingresos u otros recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

– No hallarse la persona o entidad solicitante sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de ayudas o subvenciones públicas o no estar incurso en alguna prohibición legal que inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de

gearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritz.

– Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta diru-laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

5. *Diru-laguntzen emakida, zenbatekoa eta muga.*

Diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Ondorio horietarako, aurkeztutako eskabideak erkatuz emango dira laguntzak, haien artean hurrenkera bat ezartzeko, 12. artikuluan bi modalitateetarako ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideen arabera.

Aurkeztutako proiektuek gutxienez honako puntuazio hauek lortu beharko dituzte:

A modalitatea: 30 puntu.

B modalitatea: 25 puntu.

6. *Gauzatzeko epea eta proiektuak nola justifikatu.*

Oro har, proiektuak gauzatzeko eta gastuak sortzeko (fakturatzeke) epea 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Diru-laguntzaren xedea justifikatzeko, onuradunek oinarrien 16. artikuluan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute deialdiaren urtea amaitu eta hurrengo hilabetean. Azken eguna 2020ko martxoaren 31 izango da.

Nolanahi ere, deialdi honen esparruan diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira 16. artikuluan ezarritakoak.

B modalitatearen kasuan, egonaldiko oinarritzko gastuak ere lagunduko dira diruz, hala eskatzen duten kasuetan: alokairua, elikadura, ura, gasa eta elektrizitatea.

Azpeitia, 2020ko ekainaren 10a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (2751)

sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

– Que son ciertos los datos contenidos en la solicitud y documentación que le acompaña y que cumple con los requisitos establecidos en la normativa vigente para ser beneficiario/a de estas subvenciones.

La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

5. *Concesión, cuantía y límite de las subvenciones.*

Se concederán las subvenciones mediante el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de selección y valoración fijados en el artículo 12 para ambas modalidades.

Será necesario que los proyectos presentados obtengan como mínimo las siguientes puntuaciones:

Modalidad A: 30 puntos.

Modalidad B: 25 puntos.

6. *Fechas de ejecución y justificación de los proyectos.*

Con carácter general el periodo de ejecución de los proyectos y devengo (facturación) de gastos será desde el 1 de enero de 2020 hasta el 31 de diciembre de 2020.

Para justificar el objeto de la subvención, los beneficiarios deberán presentar la documentación requerida en el artículo 16 de las bases en el mes siguiente a la finalización del año de la convocatoria, estableciéndose como fecha límite el 31 de marzo de 2020.

En todo caso, se consideran gastos subvencionables en el marco de la presente convocatoria los establecidos en el artículo 16.

En el caso de la modalidad B, se subvencionarán, asimismo, los gastos básicos de estancia en los casos que así lo requieran; alquiler, alimentación, agua, gas y electricidad.

Azpeitia, a 10 de junio de 2020.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (2751)